

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Tokiko Erakundeetako emakume politikarien foroaren sorreran 61 emakume elkartu dira

*Gaur Iruñean eratu den foroan, Ana Olo kontseilariak gidaturik, 44 udalerrietako emakumeek hartu dute parte*

Asteartea, 2019.eko urtarrilak 15

Nafarroako Foru Erkidegoko 44 udalerrietako 61 emakumeek parte hartu dute Nafarroako Tokiko Erakundeetako emakume politikarien foroaren osoko biltzarrean. Gaur sortu den foroak jarraipena izango du tokiko jardunaldiekin, Iruñean urtarrilak 23 eta otsailak 20 asteazkenetan eta Garesen urtarrilak 24 eta otsailak 21 ostegunetan. Bertan emakume politikariek gizarte eta parte-hartze politikoan dituzten muga espezifikokoak landu eta horiei irtenbideak aurkitzeko lan egingo da.



Olo kontseilaria eta foroako gainontzeko partehartzaileak (izenak oharraren amaieran).

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak, Ana Olok, batzarraren irekieran parte hartu du eta bertan balioan jarri nahi izan du “Nafarroako Foru Komunitateko 2018-2020 politika publikoetan parte-hartze soziala eta politikoaren estrategian” izandako parte-hartzea. Gainera, Parte-hartze zerbitzuak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak elkarrekin biko estrategia gauzatzeko egindako lana goraiatu ditu: Nafarroan Herritarren Parte-hartzea bultzatzeko 2016-2019 planaren marko orokorrean, emakumeak herritar aktibotzat hartuz eta plan eta arautegietan genero ikuspegia jasoz, eta emakume nafarrek gizartean eta politikan parte hartzea izan dezaten ekintza lerroak zehaztuz.

Estrategiaren sorreran, emakume politikariek egindako lanean, ideologia politikoak alde batera utziz, topatutako oztopoak identifikatu ziren. INAI-NABiko zuzendari kudetzailleak, Mertxe Leranozek aipatu duenez, “nahiz eta alderdi politiko ezberdinetakoak izan, amankomuneko bidea dago emakume izanik, eta oinarrizkoa da zuen eguneroko lanean elkartzen zaitzuten gauza, egoera eta mugak erdigunean jartzea”.

Era berean, Nafarroako  
Udal eta Kontzejuetako  
Federazioko lehendakariak,  
Pablo Azconak

berdintasunarekiko bere konpromezua nabarmendu du, bai politika publikoen bultzadarekin, zein emakumeen parte-hartzea sustatuz. Eta kasu horretan, beren gobernu taldeetako datuak azaldu ditu, horien arabera, bost pertsonetatik bat alkatesa da, eta hirutik bat zinegotzia, egun %22 eta %35era helduz.

Amaitzeko, Miren Gutiérrez, kazetari eta Komunikazio Zientzietan adituak, emakumeek politikan duten egoera eta beraiek ikusgai egiteko erronken inguruan aritu da.

ARGAZKI OINA: Ezker-eskuin: Mertxe Leranoz, INAI-NABiko zuzendari kudeatzailea; Peio Pellejero Komunikazio zuzendari orokorra; Pablo Azcona Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakaria; Ana Olló, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria; Itziar Gomez Iruñeko Udaletxeko zinegotzia; Miren Gutiérrez eta Pili Kaltzada kazetariak.



Foroaren irekiera ekitaldira gerturatu direnak.